EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

2017

XXI edizioa

EUSKADILITERATURASARIAK

PREMIOSLITERATURAEUSKADI

2017

Euskarazko Haur eta Gazte Literatura / Literatura Infantil y Juvenil en Euskera

Literatura Lanaren Ilustrazioa / Ilustración de Obra Literatura

Gaztelaniazko Saiakera / Ensayo en Castellano

Euskarazko Literatura Itzulpena / Traducción Literaria en Euskera

2017ko urriaren 11n / 11 octubre de 2017

PRENTSA OHARRA
NOTA DE PRENSA

Leire Bilbao, Ander Izagirre, Mikel Valverde eta Matías Múgica dira aurtengo Euskadi Literatura Sarietako gainerako irabazleak

- *Euskarazko Haur eta Gazte Literatura, Gaztelaniazko Saiakera, Literatura Lanaren Ilustrazioa eta, azkenik, Euskarazko Literatura Itzulpena modalitateetako irabazleak izan dira, hurrenez hurren.*

Donostia, 2017/10/11
Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuorde Joxean Muñozek ezagutzera eman ditu, gaur, Euskadi Literatura Sarietako aurtengo azken irabazleak. Iragan irailaren 29an lehen hiru modalitateetakoak ezagutzera eman ostean, gaur gainontzeko lau ataletakoak iragarri dira: Euskarazko Haur eta Gazte Literatura, Gaztelaniazko Saiakera, Literatura Lanaren Ilustrazioa eta, laugarrenik, Euskarazko Literatura Itzulpena. Leire Bilbao, Ander Izagirre, Mikel Valverde eta Matías Múgica izan dira, hurrenez hurren, irabazleak.

- Euskarazko Haur eta Gazte Literatura: Leire Bilbao, *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk*.
- Gaztelaniazko Saiakera: Ander Izagirre, *Potosí*.
- Literatura Lanaren Ilustrazioa: Mikel Valverde, *Versos de deportes*.
- Euskarazko Literatura Itzulpena: Matías Múgica, *Testamentua (François Villon)*.

Tabakalerako Ubik liburutegian izandako prentsaurreko batean, Joxean Muñoz sailburuordeak lau modalitate hauetako epaimahaiek beren ebazpenak argudiatzeko emandako arrazoiak irakurri ditu. Lau modalitate hauteako irabazleak berarekin batera izan dira agerpen publiko honetan eta saria eskertu dute. Datorren azaroaren 13an banatuko dira aurtengo Euskadi Literatura Sariak beren zazpi modalitateetan. Han izango dira, baita ere, beste hiru modalitateetako irabazleak:

- Euskarazko Literatura: Asier Serrano, *Linbotarrak*.
- Gaztelaniazko Literatura: Fernando Aramburu, *Patria*.
- Euskarazko Saiakera: Arantxa Urretabizkaia, *Bidean ikasia*.

Saridun bakoitzak 18.000 euroko saria izango du, eta beste 4.000 euro eskura ditzake bere lana beste hizkuntza batean argiratzen bada.

Gaur ezagutzera emandako lau modalitate hauen inguruko informazio guztia hurrengo orrialdetan kontsulta daiteke.

PRENTSA OHARRA
NOTA DE PRENSA

Leire Bilbao, Ander Izagirre, Mikel Valverde y Matías Múgica completan la lista de ganadores de los Premios Euskadi de Literatura

- *Se han impuesto en las modalidades de Literatura Infantil y Juvenil en Euskera, Ensayo en Castellano, Ilustración de Obra Literaria y, por último, Traducción Literaria en Euskera.*

Vitoria-Gasteiz, 11/10/2017

El viceconsejero de Cultura del Gobierno Vasco, Joxean Muñoz, ha dado a conocer hoy el resto de ganadores de los Premios Euskadi de Literatura. Después de que el pasado 29 de septiembre se anunciasen los vencedores en las tres primeras modalidades, hoy se han anunciado las y los ganadores en las cuatro que restaban: Literatura Infantil y Juvenil en Euskera, Ensayo en Castellano, Ilustración de una Obra Literaria y, por último, Traducción Literaria en Euskera. Las personas ganadoras en esas cuatro categorías son, respecticamente, Leire Bilbao, Ander Izagirre, Mikel Valverde y Matías Múgica.

- Literatura Infantil y Juvenil en Euskera: Leire Bilbao, *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk*.
- Ensayo en Castellano: Ander Izagirre, *Potosí*.
- Ilustración de Obra Literaria: Mikel Valverde, *Versos de deportes.*
- Traducción Literaria en Euskera: Matías Múgica, *Testamentua (François Villon)*.

En la rueda de prensa de hoy el viceconsejero Joxean Muñoz ha explicado los argumentos sobre los que se han sustentado los respectivos pronunciamientos de los jurados en estas cuatro modalidades. Al acto han asistido también las cuatro personas ganadoras, que han agradecido este reconocimiento. La gala en la que se hará entrega de los Premios Euskadi de Literatura en sus siete modalidades tendrá lugar el próximo 13 de noviembre. Allí estarán también las y los vencedores de las otras tres modalidades:

- Literatura en Euskera Literatura: Asier Serrano, *Linbotarrak*.
- Literatura en Castellano: Fernando Aramburu, *Patria*.
- Ensayo en Euskera: Arantxa Urretabizkaia, *Bidean ikasia*.

Cada ganador recibirá 18.000 euros por este reconocimiento, a los que se sumarán otros 4.000 euros en caso de que la obra se publique en otro idioma.

Toda la información en torno a las y los ganadores de las cuatro modalidades que se han dado a conocer hoy se puede consultar en las siguientes páginas.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EUSKADI LITERATURA SARIAK
PREMIOS EUSKADI DE LITERATURA
2017

Euskarazko Haur eta Gazte Literatura – Literatura Infantil y Juvenil en Euskera

Irabazlea - Ganadora: **LEIRE BILBAO**
Izenburua - Título: ***Xomorropoemak eta beste piztia batzuk***
Argitaletxea - Editorial: **Pamiela**

Gaztelaniazko Saiakera – Ensayo en Castellano

Irabazlea - Ganador: **ANDER IZAGIRRE**
Izenburua - Título: ***Potosí***
Argitaletxea - Editorial: **Libros del K.O.**

Literatura-Lanaren Ilustrazioa – Ilustración de Obra Literatura

Irabazlea - Ganador: **MIKEL VALVERDE**
Izenburua - Título: ***Versos de deportes***
Argitaletxea - Editorial: **SM**

Euskarazko Literatura Itzulpena – Traducción Literaria en Euskera

Irabazlea - Ganador: **MATÍAS MÚGICA**
Izenburua - Título: ***Testamentua (François Villon)***
Argitaletxea - Editorial: **Erein & Igela**

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EUSKADI LITERATURA SARIA

EUSKARAZKO HAUR ETA GAZTE LITERATURA

2017

Epaimahaia

- Igor Idoeta epaimahaiburua
- Elisabet Mas epaimahaikidea
- Mikel Aierbe epaimahaikidea
- Irati Zaldua epaimahaikidea
- Imanol Mercero epaimahaikidea

Irabazlea

Irabazlea:	Leire Bilbao Barruetabeña
Izenburua:	*Xomorropoemak eta beste piztia batzuk*
Argitaletxea:	Pamiela

18.000 euroko saria eta 4.000 euro, lan saritua beste hizkuntza batean argitaratzen bada.

Epaimahaiak ikusitako merituak

Zomorroei dei ozen bat egiten zaie bestiario poetiko honetan, ez ordea intsektuei -maitasun keinu askoren xede izanik ere liburuan zehar-, baizik eta gure inguruko txikitxoei, gure "xomorrotxoei". Haur literaturak behar duen tonua eta pultsuari ederki heldu dio obra honek, izenburutik bertatik. Hizkuntzarekin jolastera inguratzeko gonbidapena da, eta hizketarekin ere bai, boz gora irakurrita dituen bertuteak are nabarmenagoak egiten direlako.

Jolasa, irribarrea, irudimena, elkarren abaroa, denak dira aintzat hartzeko baloreak -ezinbestekoak agian- haurrengana inguratzen garenean, eta hauek guztiak eskaintzen ditu liburu honek.
Obra koherentea da, trinkoa, poema guztien artean aldarrikapen orokor bat eskaintzen duena. Bat eginda daude euren tonu umoretsuan, euren jarrera jostalarian, eta, hala ere, poema bakoitza gai da bere anekdota partikularrari eusteko, bere originaltasun partikularra aldarrikatzeko.

Tradiziotik datozen baliabideak maisutasunez erabili dituela iruditu zaigu, gure gaurko testuingurura obra fresko eta berritzaile bat ekartzeko. Ez du ezer berririk asmatu, lehendik ere hor zegoena berrerabili du, baina emaitza paregabea suertatu da, eta horixe goraipatzen dugu.
Aldian aldian, zomorro eta piztia batzuei gertatzen zaizkien gorabeherak kontatzen zaizkigu, harridura sor dezaketen testuinguruak deskribatuta, eta amaierarako ezustea gordeta.

Leire Bilbao

Ondarroa, 1978.
Haur literaturan ibilbide oparoa izateaz gain, helduentzako bi poema liburu ditu: *Ezkatak* (Susa, 2006) eta *Scanner* (Susa, 201). Poema horietako batzuk antologia ezberdinetan jaso eta hainbat hizkuntzatara itzuliak izan dira. Kantu ere bihurtu dituzte zenbat musikarik.
Hauek argitaratutako liburu batzuk:
- *Armairu barruan ipuinak irakurtzen zituen neska* (Erein, 2010)
- *Euli bat dut bihotzean* (Elkar, 2013)
- *Gerrak ez du izenik* (Pamiela, 2013 Etxepare saria)
- *Dominiстripu jauna* (Elkar, 2014).

Xomorropoemak eta beste piztia batzuk

Poemak, xomorroak bezala, ustekabean agertzen dira. Eta ziztatu egiten dute. Eta kosk. Eta azalean koskor txikiak utzi, egunetan joaten ez direnak. Poema batzuk hegan egiten dute. Beste batzuk igeri. Badira narrasean doazenak. Baita orria zabaldu eta orro egiten dutenak ere. Poema batzuk beltzak dira. Badaude berdeak, gorriak edo beste kolore batzuetakoak. Poema batzuk lau hanka dituzte, bestetzuk sei, zortzi edota ehun. Poemak, azken finean, xomorroak bezalakoak baitira. Eta kontuz, batzuetan xomorro horiek piztia bihurtzen direlako.

Aurreko edizioetako irabazleak

(1997) Atxaga, Bernardo. *Xola eta basurdeak*, Erein.
(1998) Zubizarreta Dorronsoro, *Patxi. Gizon izandako mutila*, Pamiela.
(1999) Igerabide, Juan Kruz. *Jonas eta hozkailu beldurtia*, Aizkorri.
(2000) Juaristi, Felipe. *Animalien inauteria*, Erein.
(2001) Karlos Linazasoro. *Bota gorriak*, Anaia-Haritza.
(2002) Meabe, Miren Agur. *Itsaslabarreko etxea*, Aizkorri.
(2003) Morillo, Fernando. *Izar-malkoak*, Aizkorri.
(2004) J. M Olaizola "Txiliku". *Osaba Bin Floren*, Elkar.
(2005) Olaso, Xabier. *Pupuan Trapua*, Pamiela.
(2006) Zubizarreta, Patxi. *Pantaleon badoa*, Pamiela.
(2007) Meabe, Miren Agur. *Urtebete itsasargian*, Elkar.
(2008) Añorga, Pello. *Jenio gaiztoa*, Aizkorri.
(2009) Ruiz, Ruben. *Anekdotak*, Pamiela.
(2010) Zubizarrtea Dorronsoro, Patxi. *Xia Tenzinen bidaia miresgharria*, Ibaizabal.
(2011) Meabe Plaza, Miren Agur. *Errepidea*, Erein
(2012) Zaldua Gonzalez, Iban. *Azken garaipena*, Euskal Herriko Ikastolak
(2013) Olaso Bengoa, Xabier. *Tximeletrak*, Pamiela
(2014) Cano, Harkaitz. *Orkestra lurtarra*. Elkar
(2015) Arrieta Malaxetxebarria, Yolanda. *Argiaren alaba*. Autoedizioa
(2016) Alberdi Estibaritz, Uxue. *Besarkada*. Elkar

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

PREMIOS EUSKADI DE LITERATURA

LITERATURA INFANTIL Y JUVENIL EN EUSKERA

2017

Jurado

- Igor Idoeta presidente del jurado
- Elisabet Mas vocal del jurado
- Mikel Aierbe vocal del jurado
- Irati Zaldua vocal del jurado
- Imanol Mercero vocal del jurado

Premiada

Autora:	Leire Bilbao Barruetabeña
Título:	*Xomorropoemak eta beste piztia batzuk (Bichopoemas y otras fieras)*
Editorial:	Pamiela

Premio de 18.000 euros y 4.000 euros si la obra premiada se publica en otra lengua.

Razonamiento del jurado

En este bestiario poético se hace un sonoro llamamiento a los bichos, no así a los insectos –aun siendo objeto de muchos gestos de amor a lo largo del libro–, sino a los pequeñitos de nuestro alrededor, a nuestros"bichitos". Esta obra aborda perfectamente el tono y el pulso que necesita la literatura infantil, ya desde el título en sí. Es una invitación a acercarse a jugar con la lengua, así como con el habla, ya que las virtudes que tiene leído en voz alta se evidencian más aún.

El juego, la sonrisa, la imaginación, el refugio mutuo, todo son valores a contemplar –tal vez indispensables– cuando nos acercamos a la y loss niños, y este libro ofrece todos ellos. Es una obra coherente, compacta, que ofrece entre todos los poemas una reivindicación general. Están unidos en su tono humorístico, en su actitud juguetona y, sin embargo, cada poema es capaz de mantener su anécdota particular, para reivindicar su originalidad particular.

Nos parece que utiliza de manera magistral los recursos provinientes de la tradición, para aportar a nuestro contexto actual una obra fresca e innovadora. No se ha inventado nada nuevo, ha reutilizado lo anteriormente existente, pero el resultado ha sido extraordinario, que es lo que elogiamos. Cada vez, se nos cuentan las peripecias que suceden a algunos bichos y fieras, describiendo contextos que pueden sorprender, y reservando la sorpresa final..

Leire Bilbao

Ondarroa, 1978

Además de su fructífera trayectoria en literatura infantil, tiene dos libros de poemas para adultos: *Ezkatak* (Susa, 2006) y *Scanner* (Susa, 201). Algunos de estos poemas se han recopilado en diversas antologías y se han traducido a varias lenguas. Algunos músicos también los convierten en canción.
He aquí algunos libros publicados:
- *Armairu barruan ipuinak irakurtzen zituen neska* (Erein, 2010)
- *Euli bat dut bihotzean* (Elkar, 2013)
- *Gerrak ez du izenik* (Pamiela, premio Etxepare 2013)
- *Dominstripu jauna* (Elkar, 2014).

Xomorropoemak eta beste piztia batzuk

Los poemas, como los bichos, aparecen por sorpresa. Y pican. Y muerden. Y dejan unos pequeños granos en la piel que no se van en días. Algunos poemas vuelan. Otros nadan. Los hay que se arrastran. También los que rugen al pasar la hoja. Algunos poemas son negros. Los hay verdes, rojos o de otros colores. Algunos poemas tienen cuatro patas, otros seis, ocho o cien. Porque los poemas, al fin y al cabo, son como los bichos. Y cuidado, porque algunos de esos bichos se convierten en fieras.

Ganadores en las anteriores ediciones del premio

(1997) Atxaga, Bernardo. *Xola eta basurdeak*, Erein.
(1998) Zubizarreta Dorronsoro, *Patxi. Gizon izandako mutila*, Pamiela.
(1999) Igerabide, Juan Kruz. *Jonas eta hozkailu beldurtia*, Aizkorri.
(2000) Juaristi, Felipe. *Animalien inauteria*, Erein.
(2001) Karlos Linazasoro. *Bota gorriak*, Anaia-Haritza.
(2002) Meabe, Miren Agur. *Itsaslabarreko etxea*, Aizkorri.
(2003) Morillo, Fernando. *Izar-malkoak*, Aizkorri.
(2004) J. M Olaizola "Txiliku". *Osaba Bin Floren*, Elkar.
(2005) Olaso, Xabier. *Pupuan Trapua*, Pamiela.
(2006) Zubizarreta, Patxi. *Pantaleon badoa*, Pamiela.
(2007) Meabe, Miren Agur. *Urtebete itsasargian*, Elkar.
(2008) Añorga, Pello. *Jenio gaiztoa*, Aizkorri.
(2009) Ruiz, Ruben. *Anekdotak*, Pamiela.
(2010) Zubizarrtea Dorronsoro, Patxi. *Xia Tenzinen bidaia miresgharria*, Ibaizabal.
(2011) Meabe Plaza, Miren Agur. *Errepidea*, Erein
(2012) Zaldua Gonzalez, Iban. *Azken garaipena*, Euskal Herriko Ikastolak
(2013) Olaso Bengoa, Xabier. *Tximeletrak*, Pamiela

(2014) Cano, Harkaitz. *Orkestra lurtarra*. Elkar
(2015) Arrieta Malaxetxebarria, Yolanda. *Argiaren alaba*. Autoedizioa
(2016) Alberdi Estibaritz, Uxue. *Besarkada*. Elkar

Irabazlea - Ganadora: **Leire Bilbao**
Izenburua - Título: ***Xomorropoemak eta beste piztia batzuk***
Argitaletxea - Editorial: **Pamiela**



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EUSKADI LITERATURA SARIA

GAZTELANIAZKO SAIAKERA

2017

Epaimahaia

- Fernando Mikelarena, epaimahaiburua
- Beñat Arginzoniz, epaimahaikidea
- Santos Zunzunegui, epaimahaikidea
- Juan Manuel Díaz de Guereñu, epaimahaikidea
- Maria José Martínez, epaimahaikidea

Irabazlea

Irabazlea:	Ander Izagirre
Titulua:	*Potosí*
Argitaletxea:	Libros del K.O.

18.000 euroko saria eta 4.000 euro, lan saritua beste hizkuntza batean argitaratzen bada.

Epaimahaiak ikusitako merituak

Gaztelaniazko saiakera-modalitateko epaimahaiak *Potosí* liburua nabarmendu du haren prosaren kalitateagatik eta literatura-baliabideen erabilera egokiagatik. Ander Izagirreren kronikak mundu ezezagunetara hurbiltzen gaitu, eta horiek biziz gainezka sentiarazten digu; bestetik, azalpenak emateko bere eraginkortasunak beldurrak airean edukitzen gaitu narrazio osoan zehar.

Ander Izagirrek kontakizun egokia landu du milaka gizakik bizirauteko dituzten borroka-baldintza penagarriei buruz. Neskato meatzari baten egunerokoaren eta haren miseria eta itxaropeneko istorio txikiaren bidez, mendeetan zehar, eta gaur inoiz baino gehiago, Potosiko Cerro Ricoko meatzariak pairatzen ari diren drama izugarria islatzen da. Sentimentalismo eta noraez antzuetatik urrun, irakurleak literatura-kalitate goraipagarriko liburu bat du aurrean, gu informatzeko eta interpelatzeko dohain bikoitza duena.

Ander Izagirre

Donostia, 1976

Ander Izagirrek oinekin idazten du. Erreportajeak argitaratu ditu Karakorumeko mendietako zamaketariez, Txernobylen bizirik iraun dutenez edo *El Hierro* uhartean hodeiak jetzi zituen baserritarraz. Europako Prentsako 2015eko Saria jaso zuen Kolonbiako krimen militarrei buruzko erreportaje batengatik: “Así se fabrican guerrilleros muertos”.

Libros del K.O. argitaletxean beste lan batzuk argitaratu ditu: *Plomo en los bolsillos*, *Mi abuela y diez más*, *Los sótanos del mundo*, *Beruna patrikan* eta *Cansasuelos*.

Potosí

Potosiko Cerro Rico, mendi guztien enperadorea, mineral guztien piramidea, altxor guztien jauregia, zabortegi bat da gaur egun, egunero sartzen diren hamar mila meatzarien gainean eraisteko arriskua duena.

Potosiko meategiak zilarra metatu zuten konkistatzaile espainiarren agertokia izan zen, lehen kapitalismo boliviarra ezarri zuten lehen baroi meatzariena, sarraski militarrena eta Cheren azken gerrillarena. Lurpetik diktadurak bota dituzten langileak irten ziren; orain haurrak irteten dira, manifestatu eta hamar urtetik aurrera lan egiteko legeak lortzen dituztenak.

Potosí liburuan aparteko aberastasunaren eta pobrezia izugarrienaren mekanismoak daude. *Potosí* liburuan indarkeria dago. Katearen amaieran meategian lan egitera sartzen den hamabi urteko neskato bat dago. Neskato horren izena Alicia da eta *Potosí*-k haren istorioa kontatzen du.

Aurreko edizioetako irabazleak

(2010) Sánchez Ostiz, Miguel. *Sin tiempo que perder*, Alberdania.
(2011) Uriarte, Iñaki. *Diarios 1999-2003*, Pepitas de calabaza.
(2012) Innerarity, Daniel. *La democracia del conocimiento*, Paidos.
(2013) Zaldua, Iban. *Ese idioma raro y poderoso*, Lengua de trapo
(2014) Juaristi, Jon. *Espaciosa y triste. Ensayos sobre España*, Espasa
(2015) Zulaika Irureta, Joseba. *Vieja Luna de Bilbao*. Nerea.
(2016) Mikelarena, Fernando. *Sin piedad. Limpieza política en Navarra, 1936*, Pamiela

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

PREMIOS EUSKADI DE LITERATURA

ENSAYO EN CASTELLANO

2017

Jurado

- Fernando Mikelarena, presidente del jurado
- Beñat Arginzoniz, vocal
- Santos Zunzunegui, vocal
- Juan Manuel Díaz de Guereñu, vocal
- Maria José Martínez, vocal

Premio y premiado

Autor:	Ander Izagirre
Título:	*Potosí*
Editorial:	Libros del K.O.

Premio de 18.000 euros y 4.000 euros si la obra premiada se publica en otra lengua.

Razonamiento del jurado

El jurado de la modalidad de ensayo en castellano ha destacado el libro *Potosí* por la calidad de su prosa y su buen manejo de los recursos literarios. La crónica de Ander Izagirre tiene la capacidad de acercarnos a mundos desconocidos haciendo que los sintamos llenos de vida; por otro lado su eficacia expositiva consigue mantenernos en vilo a lo largo de toda la narración.

Ander Izagirre ha elaborado un relato certero sobre las condiciones infrahumanas en las que miles de personas luchan por sobrevivir. A través del día a día de una niña minera y de su pequeña historia de miseria y esperanza, se refleja el terrible drama que durante siglos, y hoy más que nunca, están padeciendo los mineros del Cerro Rico de Potosí. Alejado de sentimentalismos y derivas estériles, el lector se encuentra ante un libro de encomiable calidad literaria y que posee la doble virtud de informarnos e interpelarnos.

Ander Izagirre

Donostia-San Sebastián, 1976

Ander Izagirre escribe con los pies. Ha publicado reportajes sobre los porteadores de las montañas del Karakórum, los supervivientes de Chernóbil o el campesino que ordeñó las nubes en la isla de El Hierro. Recibió el Premio Europeo de Prensa 2015 por un reportaje sobre crímenes militares en Colombia: “Así se fabrican guerrilleros muertos”.

En Libros del K.O. ha publicado otras obras: *Plomo en los bolsillos*, *Mi abuela y diez más*, *Los sótanos del mundo*, *Beruna patrikan* y *Cansasuelos*.

Potosí

El Cerro Rico de Potosí, emperador de todos los montes, pirámide de todos los minerales, palacio de todos los tesoros, es hoy un vertedero de escombros que amenaza con derrumbarse sobre los diez mil mineros que entran todos los días.

Las minas de Potosí fueron el escenario de los conquistadores españoles que acumularon la plata, de los barones mineros que instauraron el primer capitalismo boliviano, de la revolución de 1952, las masacres militares y la última guerrilla del Che. Del subsuelo salieron los obreros que tumbaron dictaduras; ahora salen niños que se manifiestan y consiguen leyes para trabajar a partir de los diez años.

En *Potosí* están los mecanismos de la riqueza extraordinaria y de la pobreza más feroz. En *Potosí* está la violencia. Al final de la cadena hay una niña de doce años que entra a trabajar en la mina. Esa niña se llama Alicia y Potosí cuenta su historia..

Ganadores en las anteriores ediciones del premio

(2010) Sánchez Ostiz, Miguel. *Sin tiempo que perder*, Alberdania.
(2011) Uriarte, Iñaki. *Diarios 1999-2003*, Pepitas de calabaza.
(2012) Innerarity, Daniel. *La democracia del conocimiento*, Paidos.
(2013) Zaldua, Iban. *Ese idioma raro y poderoso*, Lengua de trapo
(2014) Juaristi, Jon. *Espaciosa y triste. Ensayos sobre España*, Espasa
(2015) Zulaika Irureta, Joseba. *Vieja Luna de Bilbao*. Nerea.
(2016) Mikelarena, Fernando. *Sin piedad. Limpieza política en Navarra, 1936*, Pamiela.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Irabazlea - Ganador: **Ander Izagirre**
Izenburua - Título: ***Potosí***
Argitaletxea - Editorial: **Libros del K.O.**



EUSKADI LITERATURA SARIAK

LITERATURA-LANAREN ILUSTRAZIOA

2017

Epaimahaia

- Nuria Hernández epaimahaiburua
- Alexandre Fernandez epaimahaikidea
- Jose Antonio Morlesin epaimahaikidea
- Enrique Martínez-Inchausti epaimahaikidea
- Ainara Azpiazu epaimahaikidea

Irabazlea eta sariaren nolakoa

Irabazlea:	Mikel Valverde Tejedor
Izenburua:	*Versos de deportes*
Argitaletxea:	SM

18.000 euroko saria eta 4.000 euroko lan saritua beste hizkuntza batean argitaratzen bada.

Epaimahaiak ikusitako merituak

Hizkuntza poetikora egokitzen diren ilustrazio freskoak, umore-ukitu handia eman eta testuaren irakurketa paraleloak eskaintzen dituzten eszena txikiak sortuta. Hizkuntza propioaz eszenak sortzeko gaitasuna, testua alde batera utzita, pisten bidez bere hizkuntza propioa sortuta.

Bere ilustrazioekin, Mikelek, ondorio hezigarriez gain, ludikoak ere lortzen ditu; izan ere, irakurlea irudia ikertzera gonbidatzen du, horrek dakarren jakin-minarekin arrazonamendu eta irakurketa propioak sortuz. Horrekin poesiara hurbiltzen laguntzen digu, irakurlea eraikitzen lagunduta.

Mikel Valverde

Vitoria-Gasteiz, 1966

Arte Ederretan lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean, Teknika Grafikoen espezialitatean. Octopus eta La Luna de Madrid argitalpenen laguntzaile izan zen, eta 1985ean Tebeos Kopón taldea sortu zuen. Urte horretan bertan Vitoria-Gasteiz, los felices 85 obran parte hartu zuen, eta hurrengo urtean Gaztela eta Leongo Komikiaren III. Erakusketako lehen saria lortu zuen. Haur eta Gazte Literaturako bere ilustratzaile-lana 1995ean hasi zen, eta harrezkero ez da geldi egon. Sektoreko argitaletxe espainiar hoberenekin argitaratu du, eta bere lana nabarmena da hainbat

bildumatan ospe handiko egileekin batera, hala nola Bernardo Atxaga edo Luisa Villar Liébana. Alderdi profesional horrekin batera, komikiak sortu eta agendak, gidak, diskoen azalak, liburuxkak eta kartelak diseinatzen ditu. 2005ean, Ilustrazioko Nazioarteko Fundación SM Saria lortu zuen, *Paula en Nueva York* obrarekin.

Versos de deportes



.

Aurreko edizioetako irabazleak

(2009) Odriozola, Elena. *Aplastamiento de las gotas*, Laberinto de las Artes.
(2010) Mitxelena, Jokin. *Ipuin-kontalariaren lapikoa*, Aizkorri.
(2011) Barrenetxea, Iban. *Bombástica Naturalis*, A buen paso.
(2012) Morante, Sara. *La flor roja*, Nevsky Prospects.
(2013) Odriozola, Elena. *Tropecista*, Barbara Fiore Editora.
(2014) Gurrutxaga, Maite. *Habiak*, Txalaparta
(2015) G. Lartitegi, Ana. *El libro de la suerte*. A buen paso
(2016) Casal Patiño, Mikel. *Así es la dictadura*. Media Vaca.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

PREMIOS EUSKADI DE LITERATURA

ILUSTRACIÓN DE OBRA LITERARIA

2017

Jurado

- Nuria Hernández presidenta del tribunal
- Alexandre Fernandez vocal del tribunal
- Jose Antonio Morlesin vocal del tribunal
- Enrique Martínez-Inchausti vocal del tribunal
- Ainara Azpiazu vocal del tribunal

Premio y premiada

Premiado: Mikel Valverde
Título: *Versos de deportes*
Editorial: SM

Premio de 18.000 euros y 4.000 euros si la obra premiada se publica en otra lengua.

Razonamiento del jurado

Ilustraciones frescas que se adaptan al lenguaje poético aportando un importante toque de humor, y generando pequeñas escenas que ofrecen lecturas paralelas al texto. Capacidad de crear escenas con lenguaje propio, al margen del texto, generando su propio lenguaje de pistas.

Con sus ilustraciones, Mikel, consigue consecuencias no solo educativas, sino lúdicas, ya que invita al lector a investigar la imagen provocando, con la curiosidad que deriva, la creacion de razonamientos y lecturas propias. Con ellas consigue acercarnos a la poesía ayudando a construir al lector.

Mikel Valverde

Vitoria-Gasteiz, 1966

Se licenció en Bellas Artes por la Universidad del País Vasco, en la especialidad de Técnicas gráficas. Fue colaborador de las publicaciones Octopus y La Luna de Madrid, y en 1985 fundó el grupo Tebeos Kopón. Ese mismo año intervino en la obra colectiva Vitoria-Gasteiz, los felices 85, y al año siguiente logró el primer premio de la III Muestra de Cómic de Castilla y León. Su trabajo como ilustrador de Literatura Infantil y Juvenil se inició en 1995 y desde entonces no ha parado. Ha publicado con las mejores editoriales españolas del sector, destacando su labor en diversas

colecciones junto a autores de renombre, como Bernardo Atxaga o Luisa Villar Liébana. Esta faceta profesional la compagina con la creación de cómics y el diseño de agendas, guías, portadas de discos, folletos y carteles. En 2005 fue distinguido con el Premio Internacional de Ilustración Fundación SM, por su obra *Paula en Nueva York*.

Versos del deporte



Ganadores en las anteriores ediciones del premio

(2009) Odriozola, Elena. *Aplastamiento de las gotas*, Laberinto de las Artes.
(2010) Mitxelena, Jokin. *Ipuin-kontalariaren lapikoa*, Aizkorri.
(2011) Barrenetxea, Iban. *Bombástica Naturalis*, A buen paso.
(2012) Morante, Sara. *La flor roja*, Nevsky Prospects.
(2013) Odriozola, Elena. *Tropecista*, Barbara Fiore Editora.
(2014) Gurrutxaga, Maite. *Habiak*, Txalaparta
(2015) G. Lartitegi, Ana. *El libro de la suerte*. A buen paso
(2016) Casal Patiño, Mikel. *Así es la dictadura*. Media Vaca.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Irabazlea - Ganador: **Mikel Valverde**

Izenburua - Título: ***Versos de deportes***

Argitaletxea - Editorial: **SM**



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EUSKADI LITERATURA SARIAK

EUSKARAZKO LITERATURA ITZULPENA

2017

Epaimahaia

- Ramon Etxezarreta epaimahaiburua
- Gidor Bilbao epaimahaikidea
- Aiora Jaka epaimahaikidea
- Elizabete Manterola epaimahaikidea

Irabazlea eta sariaren nolakoa

Irabazlea:	Marías Múgica
Izenburua:	*Testamentua (François Villon)*
Argitaletxea:	Erein & Igela

18.000 euroko saria.

Epaimahaiak ikusitako merituak

Euskadi Literatura Sarietako 2017ko Euskarazko Literatura Itzulpenaren modalitateko epaimahaiak aho batez erabaki du saria Matías Múgica jaunari ematea, François Villonen *Testamentua* Erdi Aroko frantsesetik euskaratzean egindako lanagatik.

François Villonen *Testamentua* klasiko handia da frantsesezko poesia lirikoan. 1461ean idatzia, Villonen lanik ezagunena eta enblematikoena da. Euskarazko itzulpenaren atzeko azalean dioen moduan, "obra osoa du Villonek bere bizitzako abenturez eta desbenturez betea, noiz ageri-agerian aipatzen dituela, noiz hitz erdiz eta alusio belatuen bidez. Villonen obran lirismoa eta arrunkeria, Ama Birjinarekiko eraspena eta amodioa, fede sakona eta ezmoraltasun gordina nahasten dira; ahaltsuei oldartzen zaie, miseria-lagunekiko samurtasuna adierazten du eta, aldian aldian, malenkoniatsu eta isekari, gozo eta mendekari ere agertzen da".

Horiek guztiak hizkera bizi, batzuetan gordin eta beste batzuetan samurrean eman zituen Villonek, 2023 bertso-lerro oktosilabo errimatutan, gehienetan zortziko ahapaldietan banaturik. Itzulgaia erronka ikaragarria zen; ikaragarria zentzu etimologikoan (beldurgarria), eta ikaragarria zentzu figuratuan (itzelezkoa).

Epaimahaiaren ustez, Matías Múgicak jatorrizko testuaren oihartzun zintzoa dakarren itzulpena ondu du, 7+6 silabako zortzi bertso-lerroko ahapaldietan, jatorrizkoaren errima berdin-berdina bilatu beharraz testua eta edukia larregi eraldatu gabe, baina jatorrizkoaren doinua iradokitzen

duen bulkada erritmikoa eskainiaz. Itzultzaileak berak aitortzen duenez, “testua idatzi zenean bere garaiko irakurleei egiten zien efektua bilatzea” izan du xede, eta horretarako, konplexurik gabe erabili ditu zenbait lizentzia hizkuntzan, hala silaba-kopuru egokia lortzeko nola errima aproposa eskaintzeko; Matías Múgicaren hitzak erabiliaz, jatorrizko “poemaren grazia formalak” ekartzeko itzulpenera.

Epaimahaiak berariaz aipatu gura du, azkenik, testua azaltzen eta argitzen duten oharren erabilera neurtua eta miresgarria, lanaren edizio zainduan era bikainean txertatua, irakurketari trabarik egin gabe laguntzeko taxutua.

Matías Múgica

Iruñea, 1961.

Filologia Klasikoa ikasi zuen, eta Itzulpen Masterra egina du. Nafarroako Administrazioan lan egin du itzultzaile eta editore. Hainbat autoreren lanak itzuli ditu, besteak beste, L.F. Céline, Joseph Roth, Goethe, Bocaccio, Maupassant.

Testamentua (François Villon)

Italo Sicilianok 1934an Villoni buruzko obra garrantzitsu batean dio Villon “Frantziako poeta lirikorik handiena” dela. Hori esatean, segur aski, gaurko adieran hartzen du “liriko” hitza, poeta lirikoa, gaur, bere sentimendu pertsonalak kantatzen dituena baita, poemetan bere burua, bere pena-pozak, bere pasio oldarraldiak edo bizitzak ematen dizkion etsipenak agertzen dituena. Villonek halako bizi salbuespenekoa izan ez balu, estropezuz eta erori-jaikiz betea, ez zen ezagutzen dugun poeta bihurtuko eta ez zuen gizonen oroimenean halako aztarna sakona utziko. Obra osoa du Villonek bere bizitzako abenturez eta desbenturez betea, noiz ageri-agerian aipatzen dituela, noiz hitz erdiz eta alusio belatuen bidez. Villonen obran lirismoa eta arrunkeria, Ama Birjinarekiko eraspena eta amodioa, fede sakona eta ezmoraltasun gordina nahasten dira; ahaltsuei oldartzen zaie, miseria-lagunekiko samurtasuna adierazten du eta, aldian aldian, malenkoniatsu eta isekari, gozo eta mendekari ere agertzen dena.

Aurreko edizioetako irabazleak

(1997) Morales, Jose, *Gure garaiko heroia*, Lermontov, M.J., Ibaizabal arg.
(1998) Muñoz, Jon, *Harreman arriskutsuak*, Declos, Ibaizabal arg.
(1999) Garzia Garmendia, Juan, *Ipuin hautatuak*, Borges, J.L., Ibaizabal arg.
(2000) Aldasoro, Irene, *Dublindarrak*, Joyce, J., Alberdania.
(2001) Zabaleta, Josu, *Fantasiazko ipuinak*, Maupassant, G Ibaizabal arg.
(2002) Mendiguren, Iñaki, *Harri Potter eta sekretuen ganbera*, Rowling J. K., Elkarlanean.
(2003) Navarro, Koro, *Zortzi kontakizun,* Bashevis Singer Isaac, Alberdania. Elkarlanean.

(2004) Garikano, Antton, *Bederatzietatik bederatzietara*, Leo Perutz, Alberdania & Elkar.
(2005) Zabalo, Karlos, *Parisen sabela*, Alberdania & Elkar.
(2006) Olarra, Xabier, *Estilo ariketak*, Igela.
(2007) Rey, Fernando, *Pereirak dioenez*, Igela.
(2008) Zabaleta, Josu, *Gaueko gezurrak*, Alberdania & Elkar.
(2009) Olano, Antton, *Ilargi-harria*, Alberdania & Elkar.
(2010) Mendizabal, Jesús Mari, *Eguzki kolpea*, Alberdania-Elkar.
(2011) Zabala, Karlos, *Zubi bat Drinaren gainean*, Elkar.
(2012) Olarra, Xabier eta Royo, Arantzazu, *Jakobian eraikina,* Igela.
(2013) Mendiguren, Iñaki eta Turtle, Sarah. *Tom Sawyer-en abenturak.* Alberdania-Erein-Igela
(2014) Roque, Iñigo. *Gauzen ordena naturala*. Alberdania-Erein-Igela
(2015) Garzia, Juan. *Sonetoa,* Aztarna
(2016) Olarra, Xabier. *Ulises*, Igela

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

PREMIOS DE LITERATURA EUSKADI

TRADUCCIÓN LITERARIA AL EUSKERA

2017

Jurado

- Ramon Etxezarreta, presidente del jurado
- Gidor Bilbao, vocal
- Aiora Jaka, vocal
-Elizabete Manterola, vocal

Premio y premiado

Premiado: Matías Múgica
Título: *Testamentua (François Villon)*
Editorial: Erein & Igela

Premio de 18.000 euros.

Razonamiento del jurado

El jurado de los Premios de Euskadi Literatura 2017 en la modalidad de Traducción Literaria al Euskera ha decidido, por unanimidad, conceder el premio a D. Matías Múgica, por la traducción del francés medieval al euskera de la obra *Testamentua*, de François Villon.

Le Testament de François Villon es un clásico en la poesía lírica francesa. Escrita en 1461, es la obra más conocida y emblemática de Villon. Tal y como dice en la contraportada de la traducción al euskera, "la obra de Villon está llena de aventuras y desventuras de su vida; a veces son completamente manifiestas, y otras las cuenta mediante medias palabras y alusiones veladas. La obra de Villan combina el lirismo y la vulgaridad, la devoción a la Vírgen y el amor, la fé profunda y la inmoralidad cruda; se rebela contra los poderosos, manifiesta ternura hacia los compañeros de miseria y, de vez en cuando, melancólico y burlón, también aparece dulce y vengativo".

Todo ello, Villon lo expresó en un lenguaje vivo, a veces crudo y otras veces tierno, en 2023 versos octosílabos rimados, la mayoría de las veces dividido en estrofas de ocho versos. La traducción era un tremendo reto; tremendo en el sentido etimológico (aterrador) y tremendo en el sentido figurativo (impresionante).

Según el jurado, Matías Múgica ha realizado una traducción que guarda una resonancia fiel al texto original, en estrofas de 7+6 sílabas, sin transformar demasiado el texto y contenido en busca de la necesidad de la idéntica rima del original, pero ofreciendo el impulso rítmico que sugiere la

entonación del original. Tal y como confiesa el mismo traductor, el objeto ha sido "buscar el mismo efecto que causaba en los lectores de la época en la que se escribió el texto". Para ello, ha utilizado sin complejos algunas licencias en el idioma, tanto para lograr una adecuada cantidad de sílabas, como para ofrecer una adecuada rima. Según Matías Múgica, para reflejar en la traducción "las gracias formales del poema original".

El jurado quiere mencionar expresamente, por último, el uso medido y admirable de las notas explicativas y aclaratorias del texto, introducidas excelentemente en esta cuidada edición de la obra, dispuesta para ayudar sin trabas al lector.

Matías Múgica

Pamplona, 1961

Estudió Filología Clásica y realizó el Máster en Traducción. Trabaja en la Administración de Navarra como traductor y editor. Ha traducido obras de varios autores, entre otros, de L.F. Céline, Joseph Roth, Goethe, Bocaccio, Maupassant.

Testamentua (François Villon)

Italo Siciliano en el 1934 comenta sobre una importante obra de Villon que Villon "es el poeta lírico más grande de Francia". Al decir eso, seguramente, entiende la palabra "lírico" con el significado de hoy día, ya que hoy en día poeta lírico se refiere al que canta sus sentimientos personales, el que se refleja a sí mismo en los poemas, sus penas y alegrías, sus pasiones, sus asaltos o las decepciones de la vida. Si Villan no hubiera tenido esa vida excepcional, llena de trabas y desplomes y recuperaciones, no se habría convertido en el poeta que conocemos y no habría dejado una huella tan profunda en el ser humano. La obra de Villon está llena de aventuras y desventuras de su vida; a veces son completamente manifiestas, y otras las cuenta mediante medias palabras y alusiones veladas. La obra de Villon combina el lirismo y la vulgaridad, la devoción a la Vírgen y el amor, la fé profunda y la inmoralidad cruda; se rebela contra los poderosos, manifiesta ternura hacia los compañeros de miseria y, de vez en cuando, melancólico y burlón, también aparece dulce y vengativo".

Ganadores en las anteriores ediciones del premio

(1997) Morales, Jose, *Gure garaiko heroia*, Lermontov, M.J., Ibaizabal arg.
(1998) Muñoz, Jon, *Harreman arriskutsuak*, Declos, Ibaizabal arg.
(1999) Garzia Garmendia, Juan, *Ipuin hautatuak*, Borges, J.L., Ibaizabal arg.
(2000) Aldasoro, Irene, *Dublindarrak*, Joyce, J., Alberdania.
(2001) Zabaleta, Josu, *Fantasiazko ipuinak*, Maupassant, G Ibaizabal arg.
(2002) Mendiguren, Iñaki, *Harri Potter eta sekretuen ganbera*, Rowling J. K., Elkarlanean.
(2003) Navarro, Koro, *Zortzi kontakizun,* Bashevis Singer Isaac, Alberdania. Elkarlanean.

(2004) Garikano, Antton, *Bederatzietatik bederatzietara*, Leo Perutz, Alberdania & Elkar.
(2005) Zabalo, Karlos, *Parisen sabela*, Alberdania & Elkar.
(2006) Olarra, Xabier, *Estilo ariketak*, Igela.
(2007) Rey, Fernando, *Pereirak dioenez*, Igela.
(2008) Zabaleta, Josu, *Gaueko gezurrak*, Alberdania & Elkar.
(2009) Olano, Antton, *Ilargi-harria*, Alberdania & Elkar.
(2010) Mendizabal, Jesús Mari, *Eguzki kolpea*, Alberdania-Elkar.
(2011) Zabala, Karlos, *Zubi bat Drinaren gainean*, Elkar.
(2012) Olarra, Xabier eta Royo, Arantzazu, *Jakobian eraikina,* Igela.
(2013) Mendiguren, Iñaki eta Turtle, Sarah. *Tom Sawyer-en abenturak.* Alberdania-Erein-Igela
(2014) Roque, Iñigo. *Gauzen ordena naturala*. Alberdania-Erein-Igela
(2015) Garzia, Juan. *Sonetoa,* Aztarna
(2016) Olarra, Xabier. *Ulises*, Igela

Irabazlea / Ganador: **Matías Múgica**
Izenburua / Título: ***Testamentua (François Villon)***
Argitaletxea / Editorial: **Erein & Igela**